

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Diputatu Nagusiaren 8/2019 Foru Dekretua, urtarrilaren 18koa; honen bidez Aguraingo Udalak urriaren 31ko 435/2018 Foru Dekretuaren aurka (horren bidez onetsi zen dirulaguntza lerro bat ematea energia iraunkortasuneko ekintzak sustatzeko, eta 2018ko abenduaren 21era arte luzatzea gastuak gauzatu eta 2018ko dokumentazioa aurkezteko epea) jarritako berraztertze errekurtsoa onesten da, Aguraingo Udalarari eskatutako dirulaguntza onartuz eta haren I. eta II. eranskinen zuzenketa onartuz**

Iñaki Bereza Zufiaur jaunak Aguraingo Udala (aurrerantzean "errekurtsogilea") ordezkatur aurkeztutako idazkia ikusi da. Idazki horren bidez, berraztertze errekurtsoa jarri du urriaren 31ko 435/2018 Foru Dekretuaren aurka (horren bidez onetsi zen dirulaguntza lerro bat ematea energia iraunkortasuneko ekintzak sustatzeko, eta 2018ko abenduaren 21era arte luzatzea gastuak gauzatu eta 2018ko dokumentazioa aurkezteko epea). Eta aurrekari hauek hartu dira kontuan:

#### AURREKARIAK

Lehenengoa. Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuaren bidez (ALHAOn argitaratu zen bera, 2018ko uztailaren 6an), onetsi zen dirulaguntza lerro bat ematea energia iraunkortasuneko ekintzak sustatzeko, eta 2018-2019 ekitaldiari dagokion deialdia, hau adieraziz:

"Dirulaguntzen eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira. Horretarako epea hilabetekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita."

Ondorioz, eskaerak aurkezteko ezarritako epearen dies ad quem edo azken eguna 2018ko abuztuaren 6an amaitu zen.

Bigarrena. Errekurtsogileak bere laguntza eskaera aurkeztu zuen lau eguzki farola jartzeko, 15.810,68 euroko aurrekontuarekin, 2019n egikaritu beharrekoa, eta horretarako 6.342,27 euroko dirulaguntza eskatu zuen.

Hirugarrena. Aurkeztutako eskaerak izapidetuta, deialdi hori ebatzi zen Diputatu Nagusiaren urriaren 31ko 435/2018 Foru Dekretuaren bitartez. Haren bidez, errekurtsogilearen eskaera ezetsi zen, uste baitzen epez kanpo aurkeztu zela, ulertuta haren administrazio erregistroaren bitartez eman zela: ondorioz, "autoerregistro" arloan horri buruz sortutako jurisprudentzia aplikatu behar zen, Auzitegi Nagusiaren 2002ko uztailaren 9ko (RJ\2002\6553) eta 2011ko martxoaren 17ko (RJ\2011\2188) epaietan laburbiltzen dena. Haren arabera, ezin da eskaera, erreklamazio edo errekurtso bat aurkeztu hura formalizatzen edo jartzen duen erakundearen beraren organo edo bulego baten aurrean; hala, horrelako kasuetan, eskaera hori Arabako Foru Aldundiaren erregistroan sartu zen data (eta kasu honetan 2018ko abuztuaren 7an egin zen, jardueretan jasota dagoenez) kontuan hartu beharko litzateke, eta ez "autoerregistro" hori gertatu zen data (kasu horretan, 2018ko abuztuaren 6an).

Laugarrena. 2018ko abenduaren 4an Diputatu Nagusiaren urriaren 31ko 435/2018 Dekretuaren aurkako berraztertze errekurtsoa sartu zen Diputatu Nagusiaren Sailaren Arabako Foru Aldundiaren erregistroan (Herritarrak Atenditzeko Zerbitzua), hura zuzentzeko eskatuz, bertan agertzen diren terminoetan.

Bosgarrena. Bere errekurtsio idazkian hau alegatzen du errekurtsogileak (hitzez hitz): “dirulaguntza eskaera 2018ko abuztuaren 6an bidali zen posta ziurtatuaren bidez, eta udal honek horren agiria dauka”; eta inguruabar hori frogatzeko “hura berresteko postaren idazkia eransten da, zeinean baiets baitaiteke eskaera hori epearen barruan bidali zela, baita Arabako Foru Aldundiaren hartu agiria ere”.

Azaldutako aurrekariei zuzenbideko oinarri hauek aplikatzen zaizkie,

#### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehenengoa. Egokia da aurkaratutako foru dekretuaren aurka berraztertze hautazko errekurtsioa jartzea, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123.1 artikuluan xedatutakoaren babesean. Haren arabera: «Administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsioa jar dakiok egintza eman zuen organoari berari, edo zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan».

Bigarrena. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen Legearen 4.1 artikuluan («Interesdun kontzeptua») eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, 19. artikuluan («Legitimazioa») xedatutakoaren arabera, errekurtsogilea interesduna da eta legitimazio aktibo nahikoa dauka jarritako errekurtsioa aurkezteko.

Hirugarrena. Egiaztatu da jarritako errekurtsioa onetsiko balitz eta, hala balegokio, errekurtsogileari deialdi horretan eskatutako laguntza onartuko balitzaio, ez lituzkeela aurkaratutako Foru Dekretuaren bitartez onartutako laguntzak aldatuko eta ez leukakeela eraginik haietan; izan ere, dagokion aurrekontu partidako kontsignazioa (2019. urtekoa) ez da agortu onartutako laguntzekin eta, kasu horretan, kreditu nahikoa dago horretarako.

Laugarrena. Aurkaratzeko zioak kontuan hartuta, eta espediente eta errekurtsogileak aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, zio nahikoa sumatzen da errekurtsioaren aldeko harrera egiteko; eta hori, bosgarren aurrekarian azaldu denez, alegazioetatik eta haren errekurtsio idazkiarekin batera aurkeztutako agirietatik (zeinak ez baitzeuden espediente jasota), frogatuta geratzen delako errekurtsogileak Correos-en posta ziurtatuaren bitartez bidali zuela bere dirulaguntza eskaera 2018ko abuztuaren 6an (CD 01033420622 bidalketa kodearekin, eta Correos-en 2018ko abuztuaren 6an 13:31n sartzeko erregistroarekin). Ondorioz, gai honetan ez da aplikagarria “autoerregistro”aren arloan dagoen jurisprudentzia, hura izanik geroago ezestea eragin zuena, epez kanpo aurkeztu zelako ustean.

Arestiko guztiaren ondorioz, jarritako errekurtsioa onetsi behar da eta, bertan jasotzen diren errekurtsogilearen eskaerekin bat etorritik, zeinetan baitatza hura jartzeko legitimazio aktiboa, Balorazio Mahaiak errekurtsogilearen eskaera baloratu ondoren, aurreko zuzenbideko oinarrian adierazitako inguruabarrak kontuan hartuz, eta izapidetzeko bizkortasunaren, prozedurazko ekonomiaren eta ofizialtasunaren printzipioen arabera, zeinek indarreko 2018ko urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenean, araututako administrazio prozedura informatzen baitute,

#### XEDATU DUT

Lehenengoa. Aguraingo Udalak urriaren 31ko 435/2018 Foru Dekretuaren aurka (horren bidez onetsi zen dirulaguntza lerro bat ematea energia iraunkortasuneko ekintzak sustatzeko, eta 2018ko abenduaren 21era arte luzatzea gastuak gauzatu eta 2018ko dokumentazioa aurkezteko epea) jarritako berraztertze errekurtsioa onestea.

Bigarrena. Balorazio Mahaiak aurkeztutako eskaera baloratu ondoren, Aguraingo Udalarik dirulaguntza ematea, sei mila hirurehun eta hogeita lau euro eta hogeita zazpi zentimokoa (6.324,27 euro), Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldirako eta 2019. urterako luzatutako gastuen aurrekontuko 1.60.2.05.64.00.762.90.04 aurrekontu partidaren kostura (“Energia eraginkortasuna eta kudeaketa”). (105-103 (19.5.19) zorpetu erref.)

Hirugarrena. Berrestea urriaren 31ko 435/2018 Foru Dekretuaren (horren bidez onetsi zen dirulaguntza lerro bat ematea energia iraunkortasuneko ekintzak sustatzeko) I. eta II. eranskinak, 2018ko azaroaren 12ko, asteleheneko, 130 zenbakidun ALHAOn argitaratuak, haien behin betiko idazketa honela utzita: "II. eranskina. Ezetsitako dirulaguntzak" eranskinean "Aguraingo Udala"ri egindako erreferentzia oro (hirugarren lerroa) ezabatuta; eta "I. eranskina. Emandako dirulaguntzak" eranskinari lerro berri bat gehituta, "Kanpezuko Udala"ri dagokionaren ondoren (zazpigarren lerroa), eduki honekin:

MOTA	ERAKUNDEA	JARDUERA	AURREKONTUA	ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA	2018KO URTEKOA	2019KO URTEKOA
3	Aguraingo Udala	Eguzki argiztapeneko ekipamendua	15.810,68 euro	6.342,27 euro	6.324,27 euro	0,00 euro	6.324,27 euro

Laugarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Foru Dekretu honekin bide administratiboa amaitzen da eta haren aurka errekurtsogileak administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalko du, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik bi hileko epean, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, jartzea egokitzen jotzen den beste edozen errekurtsu kaltetu gabe. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 18a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE;**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*

**AMAIA BARREDO MARTÍN**